

# XEDAPEN OROKORRAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 1360

*AGINDUA, 2023ko martxoaren 8koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzen dituena.*

Kontuan hartuta Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituen azaroaren 21eko 232/2000 Dekretuaren 30., 31., 32. eta 33. artikuluetan xedatutakoa; eta ikusita Dokumentuak Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordeak 2022ko ekainaren 13ko bileran onartu zituen dokumentuak ebaluatzeko taulen proposamenak, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agindu honen I. eranskinean azaltzen diren dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzea.

Bigarrena.– 0198 kodea duen dokumentuak ebaluatzeko taula aldatzea; 2018ko urtarrilaren 31ko Aginduaren bidez (2018ko otsailaren 8ko EHAA, 28. zk.) onetsi zen, eta agindu honen II. eranskinean jasotako idazkera izango du aurrerantzean.

Hirugarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 8a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

## I. ERANSKINA

## 1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Sektore Publikoaren berezko dokumentazioa

<b>Seriearen kodea:</b>	<b>0205</b>
Serie dokumentala:	Enplegu publikoaren eskaintza.
Ebazpena:	Kontserbazio iraunkorra.
Epea:	
Erakundea	Tokiko sektore publikoa.
<b>Seriearen kodea:</b>	<b>0206</b>
Serie dokumentala:	Udal-langileen urteko plantilla.
Ebazpena:	Kontserbazio iraunkorra.
Epea:	
Erakundea	Toki administrazioa.
<b>Seriearen kodea:</b>	<b>0207</b>
Serie dokumentala:	Lan-poltsak
Ebazpena:	Prozesu bakoitzak biltzen dituen dokumentuen kontserbazio iraunkorra.
Epea:	
Erakundea	Tokiko sektore publikoa.
<b>Seriearen kodea:</b>	<b>0208</b>
Serie dokumentala:	Desjabetzea.
Ebazpena:	Kontserbazio iraunkorra.
Epea:	
Erakundea	Toki administrazioa.
<b>Seriearen kodea:</b>	<b>0209</b>
Serie dokumentala:	Tokiko sektore publikoaren planak, politikak, programak eta kanpainak.
Ebazpena:	Onartutako plana, programa edo kanpaina eta hura onartzeko izapide-dokumentazioaren kontserbazio iraunkorra, bai eta ebaluazio- eta jarraipen-txostenak ere.
Epea:	
Erakundea	Tokiko sektore publikoa.
<b>Seriearen kodea:</b>	<b>0210</b>
Serie dokumentala:	Beste administrazio edo erakunde batzuei eskatutako dirulaguntzak.
Ebazpena:	Seriea erabat ezabatzea.
Epea:	Sei urte.
Erakundea	Tokiko sektore publikoa.

## II. ERANSKINA

## 1.– Euskadiko Toki Administrazioaren berezko dokumentazioa

<b>Seriearen kodea:</b>	<b>0198</b>
Serie dokumentala:	Polizia-atestatua.
Ebazpena:	5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan kontserbazio iraunkorra mantentzen da. 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, 2 eta 7 (Arabako udalerriak), 0 eta 5 (Bizkaiko udalerriak) eta 1 eta 6 (Gipuzkoako udalerriak) zenbakiarekin amaitutako urteetan idatzitako atestatuak gordeko dira.
Epea:	Hamar urte.
Erakundea	Toki administrazioa.